

Donostia, 2016ko otsailaren 19a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, IGELDOKO SUTEARI BURUZKOA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Lurrealde Garapen eta Planifikazio Batzordeak 2016ko otsailaren 15ean izan zuen bileran Igeldoko suteen inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 14an, hainbat galdera egin genituen Lurrealde Garapen eta Planifikazio Batzordean, abenduan Igeldon 200 hektarea harrapatu zituen suteaz, eta, horren ondorioz, adierazi ziguten, Donostiako Suhiltzaileen Kidegoak egindako txostenaren arabera, gizakiak eragindakoa izan zela; ez ziguten zehaztu, ordea, ustekabekoa edo nahitakoa izan ote zen.

Batzorde horrek otsailaren 15ean egin zuen bileran esan genuen bezala, badira hainbat aztarna, nahitakoa izan zitekeela pentsarazten dutenak:

- Nahitako baso suteak, oro har, kasuen % 60-70 izaten dira.¹
- Gipuzkoako suteen % 99 gizakiak eragindakoak dira. Ustekabekoak, zigarro puntak botata edo linea elektrikoak erorita piztutakoak, ez dira erdiak ere. Gainerakoak, gehienak, eragindakoak dira.
- Azken sutea eragin lezakeen ekaitzik ez zen izan.
- Sua abiatu zen eremuan ez zegoen linea elektrikorik, ez zen inor lanik egiten ari, eta errepidea ez dago hurbil; beraz, eragindakoa baina nahi gabea izateko aukera txikia da, oso.
- Aurreko sutea, 2007koa, gutxi gorabehera inguru horretan bertan hasi zen.
- Igeldon suteak aldi-aldi izaten dira, eta beti eremu publiko berari eragiten diote.
- 2015ean sua kontrolatzeko lanean ari ziren taldeak kontrastua egiten saiatu ziren² sutea iraungitzeko; eta zailtasunak izan zituzten kontrastua pizteko. Beraz, sutea ustekabearen piztua izateko aukera gutxi dago.

¹ https://es.wikipedia.org/wiki/Incendio_forestal

² https://es.wikipedia.org/wiki/Extinci%C3%B3n_de_incendios_forestales#Contrafuego



Batzordean esan zutenez, gobernuak bilerak egin ditu Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin, eta egiten ari diren ikerketen berri eman diete. Eginbideak egiten ari dira, eta oraindik ezin da ondoriorik aurreratu. Era berean, esan ziguten Ingurumen Fiskaltzak ere hasi dituela eginbideak gai horren inguruan.

Bestalde, zinegotzi ordezkariak jakinarazi zigun Igeldo-Mendizorrotzeko kudeaketa plan bat egien ari direla, xeheki azaltzeko sutearen eragina, lehengoritze neurriak, sutearen eragina arintzeko prebentzio neurriak eta erabilera plangintza. Horrez gain, hainbat jarduera ari dira lantzen alde horretako suteak ahal bezainbeste gutxitzeko, behin eta berriz izaten baitira.

Horregatik guztiagatik, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari jarrai dezala modu proaktiboan elkarlanean, hala Ertzaintzarekin nola fiskalarekin, Igeldoko sutearen jatorria zein izan argitzeko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari jakinaraz diezaiela talde politikoei zer neurri hartu dituen jadanik eta zer neurri hartu asmo dituen gizakiak eragindako sute gehiagorik izan ez dadin basoetan.

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.